

MIKHAIL GORBATXOV ERRUSI'KO ERRIKETA-BEDEAI BURUZ MINTZO

UDAZKENEKO GARRAZTEAK

“Gu danok oraindik egoera iragan-korrean gera, ta asko egin bearra dago, Errusi oraingo erri-agintezko aberri biurtzeko”, adierazi zuan Batzar Erkal gizartezale Batzaren (Soviatar Batzaren) lenen lendakari Mikhael Gorbaxov'ek “Argumenty i Fakty” izparringiaren izparkari-galdeketan. Errusi'ren etorkizunerako bideak zuzenketan benak edo serioak eskatzen ditu, baña ba dira aberrian orain dagoan egoera sendotu nai duten indarrak. Gizoste edo jende beartsuaren kopuruak orrelakorik eziñ-onartuzkoa dala adierazten du.



Gorbaxov'ek esan zuenez, egoeraren aldiñ-esate edo balorazioa ezker erdigunetik abiatuta, onoko auxen da: txindijaramanbide edo ekonomi garapenik gabe, aurrerunzko igikundeak erri-agintezko jarduera tajutzerik ezta izango. Leenik eta beñ, orokorrean garatza edo negozioa garatzeko bide egin bearra dago, garatztikia garatzeko, benazkiago edo serioago onartzea ekoizketaren gaurkotzea ta ekoizleen iritzia. Aberriaren aurrerunzko igitaldiaren bidea txit zala da. Alaxe esan zuan: “Bereiziki aitatu nai nuke, emen derigorrez gure aberri-berezitasunak ikasi bear ditugula, biregituraketa edo “perestroika” aurretik erri-aginterik ezagutzen ezkendulako. Onen inguruan oso egiteko gaizto edo zalla degu, erri-agintearen leen-egiak (demokraziaren printzipioak) notintza edo gizostearen barrunbean (kontzientzian) sartu ditezen. Gizarte-erriagintezaleek (sozialdemokratek) bat dagite aberri, gizarte ta erriaren bearrekin. Alderdi Erri-Agintezalearen leentasuna, biztanledi geyengoaren zudu edo ganoak (interesak) zeñ ikuspegiak (puntos de vista) adieraztean eta gutxiengoaren zudua ere kontuan artzean datza”.

Gorbaxov'tar Mikhail'ek, Errusiar Erri-batzako alderdi Oroerkidezaleak (EEAO) alderdi aurrerakoi bezela aurkezteko joera dun arren, aberria atzeruntz arrastaka eraman besterik eztula egiten duste (uste du). Alderdi onen kideen arabera, joera zaarretan gelditurik zerbait egin dezateke, ta or da beren utsegiterik aundierna. Orrezaz gaiñ, azken aldian oroerkidezaleai berez naiko zaill eta korapillatsu diran alderdi-barreneko artu-emanak zaildu egin zaizkiote.

IUKOS'ekiko egoerari ezaldi edo krisisekoa eziñ esan lezayokela derizkio Mikhail Sergievitx'ek. Ain zuzen ere, azkenaldian Laterri Alkartuetan (USA) 20-30 inguru baltzu edo lantegi nola edo ala auzipetu (auzia jarri) zituzten, eta an iñor etzan ezaldiatz mintzo. Gorbaxov'ek aurkaz-aurk edo notinkiro (personalmente) dazagu Khodorkovskiy IUKOS baltzu-taldearen lantegi-burua, berekin izan zan. Gorbaxov'ek zerasanez, gizaki argi ta oartikasias da (experimentado) baña, onengaitik edo argaitik aundikiari Errusi'n lendakari izatea zail izango zayetela nabarmendu nai zun

Euzkeraltzailea: Azaldegia Txiki'koak

Euzkeraltzallearen oarra: azken oar orrek, ba du bere zergaitia: naiz ta zenbait jakitunek khodorkovskiy ta beste batzuek espetxeratzeari oker iritzi, erri txeari neurri aundi batean zillegi iduritzen zayo, aberaski oyek beren lazera edo bear gorriaren obendun edo errudun lez baitikuskite.

Asier Etxaburua